



## Oinarriak 2026

### LEHIAKETAREN DESKRIBAPENA

«**HITZ-ERDIKO KONTAKETAK**» lehiaketa ZirtZart Basaurik —Basauriko Udalaren Gazteria Ataleko programak— antolatzen du, *Geuria* Hego Uribeko herri komunikabidearen eta Elkar Euskal Kulturgintzaren laguntzarekin. **12-35 urte bitarteko gazteei zuzendutako** ekimen horren helburua da **idazmenean interesa dutenen talentua aurkitzea**.

Parte hartu nahi dutenek «**mikrokontakizun**» **bat idatzi beharko dute, gehienez ere ehun (100) hitzekin**. Antolatzaileek hasierako esaldia emango dute, eta hortik abiatu beharko dira lanak. Kontakizunaren gaia, berriz, parte-hartzaile bakoitzak hautatuko du. **Euskaraz idatzitako «mikroipuinak» baino ez dira onartuko**.

**Parte hartu** nahi dutenek nahi beste kontakizun aurkeztu ahal izango dituzte, **2026ko urtarrilaren 15etik martxoaren 16ra bitartean, zirtzart.basauri.eus webgunean**. Antolatzaileek ez dituzte aintzat hartuko epez kanpo jasotako proposamenak, sariei dagokienez.

**Bost kontakizun sarituko dira: «Lehen sailkatua», «Bigarren sailkatua», «Hirugarren sailkatua», «Elkar saria»** (horretan, 12-17 urte bitartekoen proposamenak baino ez dira aintzat hartuko) eta «**Basauri saria**» (non Basaurin erroldaturiko parte-hartzaileen proposamenak baino ez diren aintzat hartuko).

### PARTE HARTZEKO ESKUBIDEA

12-35 urte bitarteko gazte orok du parte hartzeko aukera, EAEn bizi ala ez, eta nazionalitatea edozein duela ere.

Ezingo dute lehiaketan parte hartu datu okerrak, osatu gabeak edota irakurtezinak ematen dituztenek; beraz, emandako datuek egiazkoak izan behar dute. Ezingo da goitizenik baliatu lehiaketan parte hartzeko.

### BALDINTZAK

- Lehiaketaren antolatzaileek esaldi bat proposatuko dute, eta parte-hartzaileek «mikrokontakizuna» idatzi beharko dute esaldi horretatik abiatuta.
- Hasierako esaldia: «**Askotan pentsatu nuen une hartan**»

- «Mikrokontakizunek», gehienez ere, ehun (100) hitz izango dituzte, hasierako esaldia zenbatu gabe. Behin idatzita, parte-hartzaileek «mikrokontakizuna» bidali beharko dute Gazteria Zerbitzuaren webguneko «HITZ-ERDIKO KONTAKETAK» fitxan dagoen orriaren bitartez (zirtart.basauri.eus); horrekin batera, nahitaez bete beharreko eremuak bete beharko dituzte.
- Aipatutako orrian datuak emateaz gain, parte-hartzaileek onartu egingo dute datuak babesteko antolatzaileen politika (beherago jasota dator).
- «Mikrokontakizuna» euskaraz idatzita egon beharko da (ez da onartuko beste edozein hizkuntzatan dagoenik), jatorrizkoa eta argitaratu gabea izan beharko du (hau da, beste komunikabide edo euskarritan agertu gabekoa), eta aurretiaz saririk edo inongo lehiaketatan jaso gabea izan behar du.
- Ez da onartuko epez kanpo bidalitako «mikrokontakizunik», edota, oro har, oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen ez dituenik.
- Egileek beren izen-abizenak eman beharko dituzte, eta nahi beste «mikrokontakizun» aurkeztu ahal izango dituzte.
- Parte-hartzaileak izango dira «mikrokontakizunaren» jatorrizko egiletzaren erantzuleak, antolatzaileen aurrean: haiena izango da erantzukizun osoa. Beraz, antolatzaileei ez diete kalterik eragingo hirugarrenak egin ditzaketen erreklamazioak (ohoreari, intimitateari, irain eta kalumniei, irudi-eskubideari edo iraingarriak edota lizunak izan daitezkeen adierazpenei dagozkienak barne).
- Parte-hartzaileek doan lagako dizkiete antolatzaileei idatziak kopiatzeko, banatzeko, aldatzeko eta iragartzeko eskubide editorialak, bai eta testua (osorik edo zati bat) edozein euskarritan, jende guztiarentzat eta legeek ahalbidetutako gehieneko epean zehar merkaturatzeko beharrezkoak diren beste eskubideak ere.
- Epaimahaiak baztertu ahal izango ditu hirugarrenen intimitatearen, ohorearen eta irudiaren aurka doazen «mikrokontakizunak»; aipamen arrazistak, sexistak edota diskriminatzaileak dituztenak; iruzkin lizunak, iraingarriak edota hirugarrenen duintasunaren zein moralaren aurkakoak direnak, edo ordena publikoaren aurka doazenak.

## SARIAK

«HITZ-ERDIKO KONTAKETAK» lehiaketan honako sari hauek banatuko dira:

- «Lehen sailkatua» saria: **BERREHUN EUROko (200,00 €) BONUA.**
- «Bigarren sailkatua» saria: **EHUN ETA BERROGEITA HAMAR EUROko (150,00 €) BONUA.**



- «Hirugarren sailkatua» saria: EHUN EUROko (100,00 €) BONUA.
- «Elkar» saria: EHUN ETA BERROGEITA HAMAR EUROko (150,00 €) BONUA.
- «Basauri» saria: EHUN ETA BERROGEITA HAMAR EUROko (150,00 €) BONUA.

**Horrekin batera, Lehen sailkatuaren, Elkar sariaren eta Basauri sariaren «mikrokontakizunak» Geuria aldizkarian argitaratuko dira** (Hego Uribeko Herri Komunikabidea da *Geuria*).

Epaimahaiak kontakizun irabazlea eta horren hiru ordezeko hautatuko ditu, kategoria bakoitzeko. Gero, antolatzaileak harremanetan jarriko dira irabazleekin, parte-hartze orrian jasotako telefonozenbakiari, eta lehiaketa irabazi dutela jakinaraziko diete. Une horretatik, 48 orduko tarte izango dute sarituek, antolatzaileek eskaturiko dokumentazioa aurkezteko. Bestela, Epaimahaiak hautatutako ordezeko batengana joko du, eta jatorrizko irabazleek ezingo dute saririk eskuratu.

Saria ezingo da trukatu, aldatu, beste batekin konpentsatu edota hirugarren bati laga, ez bada antolatzaileek eta irabazleak hala adostu, eta idatziz jasota uzten dutela. Saria jasotzen dutenek, bestalde, indarreko araudi fiskaletik etorri ahal diren zergak ordaindu beharko dituzte. Jasotako bonuak kultura-produktuekin trukatu ahalko dira, Elkar Euskal Kulturgintza SA erakundean.

Epaimahaiaren erabaki oro ezeztazina izango da. Gainera, saria eman gabe geratu ahalko da, bidalitako «mikrokontakizunen» arteko batek ere ez badauka behar besteko kalitatea.

Saria jasotzen dutenek honako datu hauek eman beharko dituzte: izen-abizenak; NANaren, pasaportearen edota bizileku-txartelaren zenbakia; helbidea, eta harremanetarako telefonozenbakia. Jakintzat joko da datu horiek ematen dituztenek berariaz onartzen dutela datuak babesteko beherago jasotako politika.

### **OINARRIAK ONARTZEA**

Parte-hartzaileek berariaz onartzen dute lehiaketa honetako OINARRI guzti-guztiak betetzea.

OINARRIetako baten bat betetzen ez dutenak lehiaketatik kanporatuak izango dira.

Antolatzaileek, behar bezala argudiatuta, OINARRI hauek aldatu ahal izango dituzte lehiaketa hasi eta gero ere.

Lehiaketa honen OINARRIAK ekimena indarrean dagoen bitartean eskuratu ahal izango dira, ZirtZart Basauriren webgunean eta Basauriko Udalaren webgunean.

## DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Izaera Pertsonaleko Datuen Babesari buruzko abenduko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikuluan ezarritakoa betetzeko —non datuak jasotzerakoan dagoen informazio-eskubidea arautzen baita—, zera adierazten dugu:

- Hemen eta beste komunikazio batzuetan emandako izaera pertsonaleko datuak **ZirtZart Basauri**ren ardurapeko fitxategien bitartez kudeatuko direla.
- Xedea dela eskatutako zerbitzua egokiro ematen dela kudeatzea. Datu horiek ez zaizkie hirugarrenei lagako (legeak baimendutako kasuetan izan ezik).
- Hemen eta beste komunikazio batzuetan eskatutako datuak derrigorrez eman beharko direla, zerbitzua eman ahal izateko beharrezkoak dira-eta (datu horiek egokiak, beharrezkoak eta neurrikoak dira).
- Eskatutako datuak eman ezean, ezingo dela parte hartu.
- Datuetara sartzeko, datuak aldatzeko, datu horiek bertan behera uzteko edota datuoi aurka egiteko eskubidea egikaritu ahalko dela ZirtZart Basaurin (haiek baitira fitxategiaren arduradunak), 15/1999 Legean ezarritakoaren arabera. **Aipatutako eskubideak egikaritu ahal izateko, honako hauetara jo beharko da: Gazteentzako Informazio Bulegoa (Autonomia, 3). 944 666 430 – 634 984 615**

## ARGIBIDE GEHIAGO HEMEN:

Basauriko Udala – ZirtZart Gazte Bulegoa

- Tel.: 944 666 430 – 634 984 615
- Helbide elektronikoa: [zirtzart@basauri.eus](mailto:zirtzart@basauri.eus)
- Webgunea: [zirtzart.basauri.eus](http://zirtzart.basauri.eus)
- Sare sozialak:
  - Instagram: [zirtzartbasauri](https://www.instagram.com/zirtzartbasauri)
  - Facebook: [facebook.com/zirtzartbasauri](https://www.facebook.com/zirtzartbasauri)
  - Twitter: [@zirtzartbasauri](https://twitter.com/zirtzartbasauri)